

Ainhoa

Aurkibidea

Udalerria: Ainhoa

Sarrera



Lapurdi barnealdean dagoen mugako udalerria da, Mendebaldeko Pirinioinguruan eta Lapurdi Garaian kokaturik dagoena. Xareta elkartea osatzen du inguruko Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi herriekin batera. Udalerriko ekonomiaren oinarria basgointza eta laborantza dira.

- **Biztanleak:** 673
- **Euskaldunak:** %27,34

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- **Hizlariak:** 4

- Zintak: **4**
- Pasarteak: **2**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

François Baptiste (1922)



François Baptiste Ainhoan sortu zen 1922. urtean. Herriko arotza (errementaria) izan zen 60 urtetan erretiratu zen arte. Ainhoan bizi izan da beti, bi urtez izan ezik. Orduan Alemanian egon zen, 1940-1944eko gerla denboran, STO delako behartutako lan zerbitzua betetzeko.

Jean Paul Barthe (1951)



Dantxariako kasetan sortua, ama bertan jaioa zen; aita, berriz, bearnesa, mekanikoa Ezpeletan. Bi haurridetan gazteena, Ainhoako eskolan ibili zen eta baita Donibane Garazin ere. 12 urte zituenean, aita hil zitzairen. Gero Miarritzera joan ziren bizitzera. Mekaniko ikasketak egin zituen, eta hura izan zuen lanbide 27 urterekin Ameriketara joan zen arte. San Franciscon (Kalifornia) osaba zuen eta bisitan joan zen. Lorezain ibili zen hasieran eta mekaniko segidan, 7 urtez. Elisabeth ezagutu zuen (italiar jatorriko amerikarra) eta ezkondu egin ziren. Garajea ipini zuten elkarrekin. Erretiroa hartu aurreko 20 urteetan, berriz, eskola bateko autobus gidaria izan zen. Musikaria da (5 CD ditu grabatuak) eta baita argazkilaria ere; hainbat dokumental egin ditu (euskal artzainei buruzkoa, besteak beste). San Franciskoko Euskal Etxean aktibo ibili da hasieratik.

Gabriele Garat (1895-1993)

Ainhoa Plazako Irubea etxean sortu zen Gabriella GARAT 1895eko martxoaren 18an. Bere ama, menaiu atxikitzailea zena, horkoa zen. Aita, berriz, Ezpeletakoa zen eta ofizioz harakina eta janari saltzailea zen. Zuraiden 1993ko abenduaren 10ean zendu zen Gabriele, 98 urte zituelarik. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.210

Françoise Irigoyen (1890)

Ainhoa Plazako Hariztoenea etxean sortu zen Françoise IRIGOYEN, non bere gurasoak alokatzaileak ziren. Aita espartin-egilea eta errotazaina zen; ama menaiu atxikitzailea. Ainhoan berean ezkondu zen Mathieu-Henri DESTANDAU jaunarekin. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 22 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.211

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com